

Funtsezko baliabideak

Gure enpresak hainbat elementu behar ditu ongi funtzionatzeko. Baliabide fisikoak garrantzitsuak dira:

- Lokal bat
- Informatikoentzako ordenagailuak
- Garraiorako auto bat.

Gainera, baliabide intelektualak beharrezkoak izango dira gure enpresan. Izan ere, arazoak konpondu, berrikuntzak egin eta hobekuntzak ezartzen dakizkien langileak behar ditugu. Horiek informatikoak izango liratezke eta aplikazioan arloan oinarrituko ziren gehienbat.



Azkenik, finantza-baliabideak behar ditugu gure proiektua aurrera eramateko. Kalkuluak egin ondoren, pentsatzen dugu, enpresa nahiz produktua sortzeko 43.800 € beharko ditugula.

- 3.000 € S.L bat eratzeko
- 800 € patentea
- 10.000 € aplikazioa egiteko (enpresa bati eskatu)
- 20.000 € sentsoreak (lokaletan kokatzeko)

Sentsoreak 20 € balio dituela ikusi dugu eta 200 sentsorekin hasiko ginen. Hortaz, 4.000 € ematen du eta bakoitzaren instalakuntzak 80 € balio duela pentsatzen dugu, 16.000 €.

- 10.000€ lokalarentzat, kotxearentzat, ordenagailuentzat eta aurreikusi ez ditugun gastuentzat izango dira

Gauzak horrela, lehen inbertsioa egiteko mailegu bat eskatuko dugu. Mailegu hori 33.800 € izango da, izan ere, guk 10.000 jarriko ditugulako hasierako inbertsioan, kapital moduan.

Horretaz gain, beste enpresekin elkarlana egiten saiatuko gara, diru kontuetan lagutza bilatzeko. Hobeto esan da, hasierako inbertsioa lortzeko, sentsoreen enpresa eta securitas direct bezalako enpresei gure ideia azalduko diegu. Ondorioz, proiektuaren zati baten jabe izango dira.